



**OSASUN SAILA**

Adistrazio eta Finantzaketa  
Sanitarioko Sailburuordetza  
*farmazia Zuzendaritza*

**OSASUN SAILA**

Administrazio eta Finantzaketa  
Sanitarioko Sailburuordetza  
*Farmazia Zuzendaritza*

FARMAZIA-BULEGOAK SORTZEKO LEHIAKETAREN ESKABIDEETAN, EUSKO JAURLARITZAREN EGOITZA ELEKTRONIKOAREN BITARTEZ, MEREZIMENDUAK ALEGATZEKO, INPRIMAKI ELEKTRONIKOA BETETZEKO ETA DOKUMENTAZIOA ERANSTEKO JARRAIBIDEAK.

VITORIA-GASTEIZ, 2023KO EKAINA.



## 1. SARRERA

Urtero, farmazia-eskualdeen eta osasun-eremuen arabera biztanleriaren banaketari buruzko kalkuluak egin ondoren, Osasun Sailak urteko lehen seihilekoan argitaratu behar du Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) farmazia-bulego berriak irekitzea bidezkoa den ala ez.

Farmazia-bulego bat edo gehiago ireki behar badira, titulartasuna merezimendu-lehiaketa bidez esleitu da, eta horretarako sortutako Balorazio Batzordeak baloratuko ditu.

## 2. ARAU-OINARRIA

1. 16/1997 Legea, farmazia-bulegoetako zerbitzuak arautzen dituena.
2. 11/1994 Legea, ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Farmazeutikoari buruzkoa.
3. 338/1995 Dekretua, ekainaren 27koa, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituena.
4. 24/2004 DEKRETUA, otsailaren 3koa, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautu zituen dekretua aldatzen duena.

## 3. EGOITZA ELEKTRONIKOAREN FORMULARIOA BETETZEA


Eskaera-inprimakia bete aurretik, “Farmazia-bulego. Farmazia sortzeko” tasa ordaintzea gomendatzen da (<https://www.euskadi.eus/osasun-alorreko-tasakinformazioa/osasun-alorreko-tasak/web01-a2farma/eu/#1833>). Egindako ordaintzaren egiaztatzea gorde egin beharko da, ondoren eskabide-inprimakian formatu elektronikoa sartzeko.

Eskaera-inprimakia bete aurretik, farmazia-bulegoei dagokien tasa ordaintzea gomendatzen da. Sortzeko eskaera (<https://www.euskadi.eus/informacion/tasas-en-materia-de-sanidad/web01-a2farma/es/#7981>). Egindako ordaintzaren egiaztatzea gorde egin beharko da, ondoren eskabide-inprimakian formatu elektronikoa sartzeko.

Farmazia-bulegoak sortzeko lehiaketan parte hartzeko eskabidea elektronikoki izapidetzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat eduki behar da. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak onartutako edozein ziurtagiri elektronikoa erabiliko dute eskatzaileek. Onartutako ziurtagiri elektronikoa esteka honen bidez kontsultatu ahal izango dira:

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Inprimakia goiko aldean azaltzen diren urratsei jarraituz beteko da. Ezin izango da urrats batetik hurrengora igaro aurrekoa bete gabe:



Lehenik eta behin, zehaztu zure izenean ari zaren (titular gisa) ala beste pertsona edo entitate baten ordezkari gisa. Kasuaren arabera, sartu eskabidean zure datuak: titularrarenak edo ordezkariarenak.

Gordetzeko ikonoa agertzen den pantailetan, kargatutako datuak gorde ahal izango dituzte, eta izapidetzearekin beste une batean jarraitu.

**Izapidetzeko gehieneko denbora mugatua da, eta, horregatik, dokumentazio guztia formatu digitalean aldeztatik prestatzea gomendatzen da, “Merezimenduak alegatzeko ereduaren” (I. eranskina) atalen arabera ordenatuta eta otsailaren 3ko 24/2004 Dekretuaren edukien arabera, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.**

Bi farmazialarik eskaera bakar baten bidez lehiaketan parte hartzea erabakitzen badute, adierazi behar da eskabidea aurkeztu eta elektronikoki sinatzen duen farmazialaria eskatzaile gisa agertuko dela, eta bestea, berriz, bigarren farmazialari interesdun gisa. Lehenengo eskatzaileak jakinarazpenak jasoko ditu eta formularioan eskatutako izapide guztiak egingo ditu, bien ordezkari gisa. Horri dagokionez, adierazi behar da bigarren eskatzaile interesdunaren datuak hasierako identifikazio-pantailan jasoko direla.

(Eskabide batean interesdun bat baino gehiago badago, lehenengo interesdunarekin egingo dira dagozkion jarduketak; 7. artikulua. Hainbat interesdun egotea, 39/2015 Legea).

Datu orokorrak sartu ondoren, bigarren urratsa eskabide-inprimakia betetzea da.

Hirugarren urratsean erantsi beharreko dokumentuak, “Merezimenduak alegatzeko ereduaren” (I. eranskina) betetakoaren arabekoak izango dira. I. Eranskina ere, bete ondoren, eskatzaileak erantsi egin beharko du. Merezimenduak justifikatzeko agiriak I. eranskineko 6 epigrafe nagusien arabera ordenatuko dira lehenik, eta hurrenkera kronologikoaren arabera bigarrenik.

Eskaera bi farmazialarik batera egiten badute, lehen eskatzaileak digitalki erantsi beharko du bigarren eskatzailearen ordezkari-tza egiaztatzen duen dokumentua (biek sinatutako idazkia eta bien NANen kopia eskaneatua), bai eta haren merezimendu digitalizatuak ere.

Azkenik, adierazi behar da eskabidea egin eta ondorengo izapideak egoitza elektronikoa egingo direla, <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/> helbidearen bidez.



## OSASUN SAILA

Adistrazio eta Finantzaketa  
Sanitarioko Sailburuordetza  
farmazia Zuzendaritza

## OSASUN SAILA

Administrazio eta Finantzaketa  
Sanitarioko Sailburuordetza  
Farmazia Zuzendaritza

## I. ERANSKINA

**FARMAZIA-BULEGO BAT SORTZEKO LEHIAKETAN MEREZIMENDUAK ALEGATZEA (24/2004 DEKRETUAREN ERANSKINAREN ARABERAKO MEREZIMENDUAK)\***

ESKATZAILEAREN IZENA

NAN

FARMAZIA DEIALDIA

**1\_JARDUN PROFESIONALA\_LAN-BIZITZAREN TXOSTENA**

Jardun profesionala baloratzeko, ezinbestekoa da lan-bizitzaren txostena (LBT) eranstea inprimaki elektronikoaren 3. urratsean.

Jardun profesionala Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko farmazia-bulego batean izan bada, dagokion Farmazialarien Elkargo Ofizialaren ziurtagiria erantsi beharko da, egiaztatzeko autonomia-erkidego horretan baimendutako farmazia-bulego batean aritu dela aldi jakin batean.

**2\_AZKEN 10 URTEETAN IRAKASKUNTZAN EGINDAKO LANA**
**2a** Tutoretzapeko praktketan irakasle moduan

**2b** BFEren praktketako tutore moduan

**2c** Unibertsitateko katedradun edo irakasle tituludun moduan

**2d** Etengabeko prestakuntzako irakasle moduan

**3\_FARMAZIA-ARRETAREKIN LOTUTAKO ARGITALPENAK AZKEN 10 URTEETAN**
**3a** Liburuak

**3b** ISSNdun aldizkarian argitaratutako artikulua

**3c** ISSNrik gabeko aldizkarian argitaratutako artikulua

**3d** Posterra, ahozko komunikazioa...

**4\_ GRADUONDOKO PRESTAKUNTZA**



4a	<u>Unibertsitatekoa: gradua, Ikasketa aurreratuen diploma (IAD), doktorea, berezko tituluak (masterra, espezialista edo antzekoa).</u>
4b	<u>Unibertsitatez kanpokoak: Farmazialari Espezialistaren Titulua</u>
4b3	<u>Unibertsitatez kanpokoak: Etengabeko Prestakuntza <b>Azken 10 urteetan</b></u>
<b>5_EUSKARA</b>	
<b>6_EUROPAR BATASUNeko HIZKUNTZAK</b>	

**\* GARRANTZITSUA:**

Digitalizatutako dokumentu hau inprimaki elektronikoaren hirugarren urratsean erantsi beharko da.

Alegatutako merezimenduen egiaztagiriak eta LBT prozedura elektronikoaren 3. urratsean ere erantsiko dira, dagokion epigrafea kontuan hartuta (adibidez: 4\_GRADUONDOKO PRESTAKUNTZA: graduondoko prestakuntza guztia erantsi behar da. Dokumentu honen sailkapena jarraitu lehendabizi - 4a, 4b, 4b3- eta bigarrenik, hurrenkera kronologikoa erabili.

Balorazio-irizpideei eta merezimenduen baremoari buruzko zalantzak 24/2004 Dekretuan kontsultatu beharko dira. Dekretu honek aldatzen du Farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozeduren Dekretua.